

Hizkuntza-jolasak Lehen Hezkuntzan

**Egiturak lantzen: elkarrizketa itxietatik
irekietara**

**Ebete hizkuntza-zerbitzuak
www.ebete.eus
2023ko otsailean**

Aurkibidea

Lehenengo atala: Azalpenak	3
Bigarren atala: Eguneroko esamoldeen lanketa	8
Hirugarren atala: Egiturak lantzeko proposamenak	13

LEHENENGO ATALA: AZALPENAK

Elkarrizketa itxiak ahozko gaitasuna lantzeko tresna moduan

Elkarrizketa = Beraien artean erabili behar dituzten esaldiak dira.

Itxiak= Irakasleak ematen dizkie esaldiak, beraiek soilik erabili egin behar dituzte.

Dokumentu honetan proposatzen diren jarduerak, ikastetxeetan ikasleen ahozko gaitasun komunikatiboa lantzeko tresna lagungarri moduan proposatzen dira.

Hizkuntzaren hainbat egitura ikasi eta barneratzeko tresna egokia da landu nahi dugun hori askotan errepikatzea, eta dokumentu honetako tresnak izaera hori dute. Eginda ematen dizkiegun esaldiak dira: ikasleek ez dute ezer sortu eta garatu behar, soilik erabili egin behar dituzte.

Proposamenak lantzerakoan bi ideia eduki dira oso kontuan:

- Elkarrizketak dira
- Jolasak dira

Landu nahi ditugun esamoldeak beraien artean erabiltzea nahi dugu. Esaldi edo egitura horiek eguneroko harremanetan erabiltzea nahi badugu, egokia da egoera bideratuetan beraien artean askotan erabiltzea lortzea. Horregatik proposamenen helburua ez da soilik esaldi batzuk erabiltzea, beraien arteko elkarrizketak izatea baizik.

Jolas moduan lantzea proposatzen da. Elkarrizketa itxiak modu ezberdinetara erabil daitezke: hizkuntzazko errutinetan, esketx edo antzerki laburretan, abestietan... Modu ludikoan erabiltzea proposatzen da. Hau da: ikasleek askotan erabiltzea nahi dugu baina horretan ari direnean esaldiak modu kontzientean eta ondo pasatzen duten bitartean erabiltzea. Esaldiak ez dira eguneroko benetako egoera batean lantzen, baina egoera bideratu hauetan landuz, gero errazagoa izango da beraientzat benetako egoeretan erabiltzea, batez ere irakasleak horretan ere laguntzen badu.

Elkarrizketa itxiei begirako tresnak

- Proposatzen diren hizkuntza-jolasen ezaugarriak

Egoera eta ezaugarri ezberdinetako hizkuntza-jolasak erabil daitezke. Dokumentu honetan proposatzen diren hizkuntza-jolasek ezaugarri jakin batzuk dituzte:

- Ikasgelan egiteko modukoak
- Denbora tarte txikietan
- Egitura bera lantzeko jolas ezberdinak
- Jolas bera egitura ezberdinak lantzeko
- Zailtasuna/konplexutasuna ez dira kontuan hartu
- Nahi bezala moldatzeko aukera

Ikasgelan egiteko moduko jarduerak proposatu dira eta denbora tarte laburretan (ez da saio osoa behar). Beraz, hizkuntza-jolas bat eguneko saio batek tarte batean egin daiteke ikasgelan bertan. Noski, saio osoak erabili nahi badira erabil daitezke, eta ikasgelatik kanpo erabili ahal izateko ere erraza da jarduerak moldatzea.

Egitura jakin bat landu nahi badugu, jolas ezberdinak erabil ditzakegu horretarako. Adibidez, astero jolas bat. Baina jolas bera egitura ezberdinak lantzeko ere erabil daiteke. Hau da: dinamika egokia bada, nahi diren esaldi eta elkarrizketekin erabil daitezke.

Proposamenak lantzerakoan dinamika bat aurkezten da, baina dinamika hori zein adin tartetarako den egokia ez da zehaztu. Lehen Hezkuntzako ikasleak izan dira buruan, baina erraza da dinamikak aldatu eta talde ezberdinen ezaugarrietara egokitzea. Are gehiago, erraza da jolasak konplexuago edo sinpleago egitea, eta nahi bezala moldatu daitezke.

- Esketxak

Hizkuntza-jolasen planteamendu bera izango litzake. Ezaugarri berdinak izango luke atal honek (ikasgelan egiteko modukoak, denbora tarte txiki batean...).

Gaitasun komunikatibo eta adin desberdinetara egokitze oso egokiak dira eta landu nahi den egitura erraz asko sartu dezakegu. Esketxen bidez, interpretazioaren munduan sartu eta modu oso ludikoan haien arteko elkarrizketak sortu ditzakegu nahi beste egitura zehatz txertatuz. Proposamenean egitura zehatzei begirako hainbat esketx jaso dira baina kontuan izan zuek nahi bezala moldatzeko aukera ematen dutela.

Grabazioak ere egin ditzakegu esketxetan. Entsaia ostean bideoan grabatu eta egindakoak ikusi.

- Abestiak

Abestiak egiturak barneratzeko tresna oso baliagarriak dira. Kasu honetan, proposatutako egitura bakoitzarentzat ez dugu abesti bat jaso baina euskal kantagintzatik egitura asko landu daitezke eta egitura baterako abestirik ezin badugu aurkitu abestien letrak moldatu ditzakegu edo bertsogintzara jo, koplak edo bertsoak ezagunak zaizkien doinuetara egokituz adibidez.

- Paisaia-linguistikoa edo hizkuntza-paisaia

Paisaia-linguistikoa zaintzea euskararen erabilera sustatzeko modua ere izan daiteke. Euskararen erabilera bultzatzeko euskararen aldeko mezuekin bete ohi dira ikastetxeetako paretak, baina ez da modu bakarra. Egitura zehatzak lantzeko ere erabili dezakegu bide hau eta dokumentuan hainbat proposamen jaso dira. Paisaia linguistikoaren atala landu nahi bada badira komunikatiboki kontuan izateko puntu batzuk:

- Paretak mezuz beteta baditugu eta egiturak lantzeko ez baditugu lehenagokoak kentzen zaildu egingo du hauek izan dezaketen eragina.

Denbora tarte luzez mantentzen baditugu ere indarra galtzen dute. Bi-hiru astez egongo dira kartelak.

- o Denbora horren ondoren, kartelak aldatuko dira: kartel berriak jarri (egitura horrekin edo besteren batekin).
- o Erabili dugun euskarria (kartela adibidez) lekuz aldatu
- o Deigarri egiteko bideak zeintzuk diren aztertu eta zaindu

- Esaldiek hizkuntzarekin jostatzeko aukera ematen badute askoz hobe (alaiak, txispadunak...)
- ...

Denbora horretan, irakasleek hainbatetan erabili behar dituzte karteletan agertzen diren esaldiak. Eta kartelei erreferentzia egiten badiete, hobe.

Kartelak irakasleek egin ditzakete, edo ikasleekin egin daitezke saioen batean eskulan edo jarduera moduan.

Egitura eta esamoldeak

Zer nolako esamoldeak lantzeko erabili daitezke?

Irakaslek erabaki beharko du nolako esamolde edo egiturak lantzeko erabili nahi dituen hizkuntza-jolasak, baina gutxienez hiru egoeratarako balio dute:

- Oinarrizko egiturak eta eguneroko esamoldeak lantzeko
- Gaizki erabiltzen dituzten egiturak zuzentzeko.
- Egitura berriak lantzeko.
- Hizkera informaleko esamoldeak lantzeko.

Oinarrizko egiturak eta eguneroko esamoldeak lantzeko oso aproposak dira. Hau da: egunerokotasunean maiztasunez erabil daitezkeenka. Bereziki gaitasun urria duten ikasleen kasuan, horrelako esamoldeak lantzea oso baliagarria izan daiteke egunerokotasunean erabiltzea lortzeko irakaslearen eraginez. Hau da: euskararen erabilera indartzera begirako tresna oso baliagarria izan daiteke.

Ikasleek oker erabiltzen dituzten esamolde edo egiturak lantzeko tresna egokiak dira. Jolasen bidez modu kontziente eta dibertigarri batean landu daitezke, eta horrek egunerokotasuneko egoeretan zuzen erabiltzen hastea ekar dezake, edo gaizki erabiltzen badute eta irakasleak zuzendu nahi baldin baditu, ikasleentzat askoz errazagoa izango da egitura zuzena gogoratzea.

Egitura berriak lantzerakoan ere egokia izan daiteke jolasak edo proposatzen direnak erabiltzea. Nahi dugun egitura hori behin eta berriz erabiliko dute eta barneratzea lor daiteke.

Hizkera informaleko esamoldeak lantzeko ere tresna aproposa da: animoak, adarra jotzekoak, eguneroko egoeretan errepikatzen diren esaldiak... Ikasle askok egoera informaletarako baliabide gutxi dute euskaraz, eta euskaraz erabili ditzaketen

hainbat esamolde “arrotzak” egiten zaizkie. Hori hausteko modu bat egoera bideratuetan behin eta berriz erabiltzea izan daiteke.

Irakasleek sarri gaizki erabiltzen dituzten egiturak ekarri ditugu dokumentu honetara eta egitura hauek kontuan hartuta egin ditugu proposamen zehatzak. Hauek dira dokumentuan aurkituko dituzun egiturak:

- **Nor/Nork** (Jon egin du hori)
- **Zaitut/dizut** (kalean ikusi dizut)
- **Naiteke/dezaket** (joan dezaket)
- **(-lako)** (Zergatik ez dut joan nahi)
- **Zuek eta gu(e)k**
- Esan dizut eta. (Si... esan dizut)
- Ez dut nahi (ez nahi dut)
- ...

Dokumentuan jaso ez badira ere badira ongi erabiltzen ez diren ohiko egitura eta esamoldeak: nuen/nintzen, zenidazun, que ez da horrela, a que joango gara.... Irakasleek ere hainbat identifikatu ditzakezue. Identifikatuta dituzuen horiek lantzeko baliagarriak izan daitezke proposatutako diren adibideak.

**BIGARREN ATALA: EGUNEROKO ESAMOLDEAK
 LANTZEKO PROPOSAMENA**

	Egiturak	Dinamikak
Zikloa?	<ul style="list-style-type: none"> - Zer moduz egin duzu lo? - Ze hamaiketako ekarri duzu? - Zertan ari zarete jolasten? - Zer egingo duzu arratsaldean? - Zer ikasi duzu gaur? 	<ul style="list-style-type: none"> - 1-2-3-4-5-6 - Hiru lerroan - Galdera katea - Objektuak kentzea

Dinamiken azalpena	
1-2-3-4-5-6-x	Borobilean, bakoitzak zenbaki bat esaten du. baina aukeratzen dugun zenbakia ezin da esan, eta bere ordezt beste gauza bat esan behar da: landu nahi dugun egitura. Elkarrizketa itxia sortu dezakegu 2 edo 3 zenbakiren ordezt esaldian jartzen baditugu.
Hiru lerroan	Hiru lerroan jolasa. Bi talde egin. Ordezkariak taularen ondoan jarri. Besteek esaten dietenaren arabera fitxak mugitu. Zutabe eta ilara bakoitzak hizkuntza egitera bat izango du eta hori erabiliz adieraziko diote fitxak nora mugitu.
Galdera katea	Landu nahi dugun egitura bat galdera eta erantzun bihurtu. Borobilean bata besteari galderak egiten hasiko dira. Galdera beti berdina izango da, baina erantzuna ezin da errepikatu.
Objektuak/Irudiak kentzea edo jartzea	Mahai baten gainean edo pantailan hainbat objektu edo irudi jarri. Bat erdira atera. Objektui bat kentzeko eskatu edo irudi bat kendu, hizkuntza-errutina baten bidez elkarrizketak sortu. Zer falta da? Zer gehitu dugu?

1-2-3-4-5-6	
Zer moduz egin duzu lo?	<p>Batzuetan baiezkoarekin egin eta beste batzuetan ezezkoarekin:</p> <p>7 = Ondo lo egin dut 7= Ez dut ondo lo egin 8 = Nik ere bai! 8= Nik ere ez! 9 = Nik ez 9= Nik bai</p>
Ze hamaiketako ekarri duzu?	<p>7 = Goxoa dago? 8 = Oso goxoa 9 = Nirea ere bai!</p>
Zertan ari zarete jolasten?	<p>7=Jolastu nahi? 8=Zertara? 9=Kromoetara/Futbolera/Soka saltora (<i>beraiek aukeratu dezatela</i>)</p>
Zer egingo duzu arratsaldean?	<p>Aukeren zerrenda bat egin dezakegu, eta bakoitzak horietatik nahi duena erabili:</p> <p>7=Plazara joango naiz 8=Ni ere bai! 9=Ondo pasa!</p>
Zer ikasi duzu gaur?	<p>Aukeren zerrenda bat egin dezakegu, eta bakoitzak horietatik nahi duena erabili:</p> <p>7=Pozik egoten 8=Zapatilak lotzen 9=Txistu egiten</p>

Hiru lerroan	
Zer moduz egin duzu lo?	<p>Zutabeak: Goiz joan zinen ohera? 1-Oso goiz 2-Betiko moduan 3-Oso berandu</p> <p>Lerroak: Amesak izan dituzu? 1-Amets politak 2-Amets itsusiak 3-Ametsik ez</p>
Ze hamaiketako ekarri duzu?	<p>Zutabeak: Zer ekarri duzu? 1-Txorizo bokata 2-Fruta 3-Yogurra</p> <p>Lerroak: Goxoa dago? 1-Oso goxoa dago 2-Mundiala dago 3-Txarra dago</p>
Zertan ari zarete jolasten?	<p>Zutabeak: Zertan ari zara jolasten? 1-Futbolean ari naiz 2-Pilotan ari naiz 3-Soka saltoan ari naiz</p> <p>Lerroak: Ondo pasatzen ari zara? 1-Bai, oso ondo 2-Bai, primeran 3-Ez, aspertzen ari naiz</p>
Zer egingo duzu arratsaldean?	<p>Zutabeak: Nora joango zara gero? 1-Mendira joango naiz 2-Plazara joango naiz 3-Hondartzara joango naiz</p> <p>Lerroak: Norekin joango zara? 1-Lagunekin joango naiz 2-Lehengusuekin joango naiz 3-Bakarrik joango naiz</p>
Zer ikasi duzu gaur?	<p>Zutabeak: Zer ikasi zenuen atzo? 1-Mingaina ateratzen ikasi nuen 2-Txistu egiten ikasi nuen 3-Salto egiten ikasi nuen <i>(keinu eta soinu horiek egin ditzatela!)</i></p> <p>Lerroak: Zer ikasi duzu gaur? 1-Agur egiten ikasi dut 2-Ahoa ixten ikasi dut 3-Okei egiten ikasi dut</p>

Galdera katea	
Zer moduz egin duzu lo?	<p>Galdera:</p> <p>Hiru galdera aukeran. Galdera egiten duenak erabakitzen du zein egin.</p> <p>A–Zenbat ordu lo egin dituzu?</p> <p>B–Ondo lo egin duzu?</p> <p>C–Berandu jaiki zara?</p> <p>Erantzuten duenak aukera mugatuak ditu: A–8 ordu lo egin ditut, edo 7 ordu lo egin ditut... B–Bai, ondo lo egin dut edo Ez, ez dut ondo lo egin C–Bai, berandu jaiki naiz edo Ez, goiz jaiki naiz</p> <p>Erantzuten duenak hurrengoari galdera egiten dio. Galdera berak aukeratzen du: A, B edo C. Galderaren arabera erantzuten du bestiak eta hurrengoari berriz ere galdera bate egiten dio.</p>
Ze hamaiketako ekarri duzu?	<p>Galdera: Zer hamaiketako ekarri duzu?</p> <p>Batek ondokoari galdetan honek erantzun. Adib: Sagarra ekarri dut Galdera errepikatzen jarraitu baina erantzunak beti ezberdina izan behar du</p> <p>Aurretik zerrenda bat egitea komeni da</p>
Zertan ari zarete jolasten?	<p>Galdera: Badakizu jolasten?</p> <p>Batek ondokoari galdetan honek erantzun. Hiru aukera: A–Bai, badakit.... jolasten. B–Ez, ez dakit jolasten. C–Hoberena naiz, jolasten.</p> <p>Adb: Badakizu tenisera jolasten? Bai, badakit tenisera jolasten.</p> <p>Galdera egiten duenak jolasa aldatu behar du.</p>
Zer egingo duzu arratsaldean?	<p>Galdera: Zer egin zenuen atzo?</p> <p>Batek ondokoari galdetan honek erantzun. Adib: Plazara joan nintzen Galdera errepikatzen jarraitu baina erantzunak beti ezberdina izan behar du</p> <p>Aurretik zerrenda bat egitea komeni da</p>
Zer ikasi duzu gaur?	<p>Galdera: Zer ikasi nahi duzu?</p> <p>Batek ondokoari galdetu eta honek erantzun. Adib: Surf egiten ikasi nahi dut</p> <p>Galdera errepikatzen jarraitu baina erantzunak beti ezberdina izan behar du</p> <p>Aurretik zerrenda bat egitea komeni da</p>

Objektuak kentzea <i>Gogoratu: txanda duenak objektu bat kentzeko eskatzen du. Besteak lekuz mugitu behar dira. Zer kendu duen asmatu behar dute.</i> <i>10 objektu inguru jar daitezke, eta oso erra asmatzen badute kopurua igo: 12, 15...</i>	
Zer moduz egin duzu lo?	Altzairu ezberdinen irudiak jar daitezke paretean itsatsi: ohea, aulkia, mahaia, sofa, bañera... Txanda duenak: Non egin dut lo? Erantzun behar duenak: Bañeran egin duzu lo Asmatzen badu: berak hartuko du txanda Ez badu asmatzen: txanda duenak galdezka jarraituko du
Ze hamaiketako ekarri duzu?	Jaki ezberdinen irudiak jar daitezke paretean itsatsita: fruta, yogurra, tomatea, bokadilloa... Txanda duenak: Zer jan dut patio orduan? Erantzun behar duenak: Tomatea jan duzu patio orduan Asmatzen badu: berak hartuko du txanda Ez badu asmatzen: txanda duenak galdezka jarraituko du
Zertan ari zarete jolasten?	Jolas ezberdinen irudiak jar daitezke paretean itsatsita: fruta, soka saltoa, kromoak, saskibaloia, pilota... Txanda duenak: Zertara jolastu nahi duzu? Erantzun behar duenak: Soka saltora jolastu nahi dut Asmatzen badu: berak hartuko du txanda Ez badu asmatzen: txanda duenak galdezka jarraituko du
Zer egingo duzu arratsaldean?	Leku ezberdinen irudiak jar daitezke paretean itsatsita: etxea, mendia, hondartza... Umore pixka bat sartzeko gauza absurdoagoak ere jar daitezke: eguzkia, ilargia, lainoak... Txanda duenak: Zer egin nahi duzu gero? Erantzun behar duenak: Ilargira joan nahi dut Asmatzen badu: berak hartuko du txanda Ez badu asmatzen: txanda duenak galdezka jarraituko du
Zer ikasi duzu gaur?	Sentimentu ezberdinen emotikonoak jar daitezke paretean itsatsita: negarra, farra, tristura, poztasuna... Txanda duenak: Zer ikasi dugu gaur? Erantzun behar duenak: Triste egoten ikasi dugu gaur Asmatzen badu: berak hartuko du txanda Ez badu asmatzen: txanda duenak galdezka jarraituko du

HIRUGARREN ATALA: EGITURA LANTZEKO PROPOSAMENA

Hiru urrats ematea proposatzen dugu egiturak lantzeari begira eta batez ere ikasleei euskara erabiltzeko aukera eskaintzeari begira:

- 1- Hizkuntzaren hainbat egitura ahoz lantzea modu ludiko eta kontziente batean
- 2- Ikasgeletako ohiko saioetan jarduerak egokitzea egitura horiek saioetan bertan erabil daitezten.
- 3- Egoera ez formaletan ere erabil ditzaten irakasleok Hezitzaile Berritsu moduan jokatzeko horretan lagunduz.

Kontuan izan adibideak besterik ez direla eta ikasleen adinera eta ezaugarrietara egokitu behar direla.

Atal honetan egitura zehatzei begira lehen aipatutako tresnak erabiliko dira. Beraz proposatzen diren egituretan eskema orokor bat jarraitu da, eta hau da, salbuespenak salbuespen, egitura bakoitzean aurkituko dugun eskema:

Elkarrizketa itxiak:

- *Hizkuntza-jolasa*
- *Esketxa*
- *Abestia*
- *Hizkuntza-paisaia*

Elkarrizketa irekiak:

- *Jarduera egokitzea*
- *Hizkuntza-errutina txertatzea*

Egoera ez formaletarako galderak

Nor/Nork

- Hizkuntza-jolasa I: ZU-ZUK

Zu-zuk jolasa egingo dugu:

Liburua	Umoretsua
Bizikleta	Jatorra
Mugikorra	Zintzoa
Baloia	Eroa
Jertsea	Maitakorra

Borobilean egotea komeni da. Zutik edo eserita. Taldea handia bada, bi-hiru taldetan banatu dezakegu.

Arbelean bi zerrenda idatziko ditugu. Batean objektuak eta bestean adjektiboak.

Adibidez: batean liburua, mugikorra, bizikleta eta bestean zintzoa, altua, umoretsua ...

Lehen urratsa:

- Bi galdera-erantzun erabiliko ditugu. Adibidez:
 - *Zuk ... nahi duzu? Bai, nik ... nahi dut / Ez, nik ez dut ... nahi.*
 - *Zu ... zara? Bai, ni ... naiz. / Ez, ni ez naiz*
- Lehenengoak bere eskumakoari galdera egingo dio eta zerrendako objektu bat aipatu: *Zuk bizikleta nahi duzu?*
- Bigarrenak galdera erantzun dezake edo erantzun gabe utzi eta bere eskumakoari egin galdera: *Zuk bizikleta nahi duzu?*
- Horrela jarraituko dugu norbaitek erantzutea erabaki arte. Erantzuten duenak bi gauza egin behar ditu.
 - Batetik, erantzuna eman: *Bai, nik bizikleta nahi du* edo *Ez, nik ez dut bizikleta nahi.*
 - Bestetik, ezkerrekoari galdera egin baina adjektiboarekin: *Zu umoretsua zara?*

- Bigarrenak galdera erantzun dezake edo erantzun gabe utzi eta bere ezkerrekoari egin galdera: *Zu umoretsua zara?*
- Norbaitek galdera erantzuten duenean, beste objektu bat aukeratu eta berriz bere eskumakoari egingo dio galdera.

Bigarren urratsa:

- Zailtasun gehiago izateko, galdera egiten duenak ezkerrekoari edo eskumakoari egin beharrea beste norbaiti egitea erabaki dezake.
- Horretarako:
 - o Galdera egin behar duenak, *Baina* luze bat esan behar du beste guztiak galdera edozeinentzat izango dela jakin dezaten.
 - o Behatzez norbait seinalatu edota izena esango du eta berari egingo dio galdera: *Baina*, Idoia, zuk bizikleta nahi duzu?
 - o Honek erantzun egin behar du: *Bai, nik bizikleta nahi dut* edo *Ez, nik ez dut bizikleta nahi.*
 - o Ondoren, berak erabakiko du ezkerrekoari edo eskuinekoari egin galdera, eta berriz ekingo zaio.

Kontuan izatekoak:

- Behin dinamika ulertzen dutenean, azkar egitea komeni da: erritmo bizia ematen bazaio jolas polita da.
- Zu-zuk moduan proposatzen da, baina ni-nik edo beste edozeinetarako ere balio du.
- Objektuak ere erabil daitezke: galdera egiteaz gain objekturen bat edo marrazkiren bat pasatzea.
- Lehiakortasun ukitu bat eman nahi bazaio, bakoitzak gehienez bi aldiz huts egin dezakeela esan dezakegu, eta modu horretan gero eta talde txikiagoak parte hartuko du.

- Hizkuntza-jolasa II: *Ipuin soinuduna I: Lur*

Hiru talde egingo ditugu: talde batek soinuak egin beharko ditu, beste talde batek nor galderak eta hirugarren taldeak nork galderak.

Irakasleak ipuina osorik kontatuko die eta azalpenak eman.

Bigarren aldiz ipuina kontatzerakoan, talde bakoitzak bere zatia egin beharko du.

Beste bi aldiz ere irakurriko da, eta kasu honetan taldeen zereginak aldatuko dira: nor galdetzen zutenek soinuak egin...

Aukera:

- Denbora izan ezker eta nahi izan ezker, talde txikietan jarri eta ipuin berriak haiei sortzeko aukera emango zaie (jarduerak egokitzea).

IPUIN ADIBIDEA:

Mendian zegoen etxe txiki-txiki batean bizi zen Lur. Lasai bizitzea gustatzen zitzaion, eta jenderik gertu ez izatea ez zitzaion axola.

- *Zein lasai bizi naizen!- Esaten zuen beti*

Egun batean, haize handia egiten zuen egun batean (fiuuuu) Susto handi bat hartu zuen (aaaah!). Zergatik? Ez zuen espero eta norbaitek atea jo zuen. (Tok tok).

A-Nor da?

B-Ni naiz!

A- Baina... Nor zara zu?

B-Zure anaia!

A- A! Bale! Sartu!

Etxera sartu orduko berriz ere atea jo zuten. (Tok tok)

A- Nor da?

B-Ni naiz!

A-Baina nor zara zu?

B-Zure lehengusua.

A- A! Bale! Sartu!

Eta berriz, eta berriz... Tok tok. A-Nor da? B-Ni naiz. A-Nor zara zu? Laguna, semea, ama, iloba, amona, aitona...

Etxea gainezka bete zitzaion. Alde batetik pozik zegoen, baina bestetik urduritzen hasi zen. Festa handia sortu zen etxean: denak hizketan, kantari, dantzan...

Eta halako batean zarata bat entzun zen (Kraskaana!). Zerbait puskatu zen.

A- Nork puskatu du aulkia?

Inork ez zuen erantzun. (Ssssss)

Erratza hartu eta jasotzen hasi zen. Eta halako batean zarata bat entzun zen (Kreskeeee!). Zerbait puskatu zen.

A- Nork puskatu du mahaia?

Inork ez zuen erantzun. (Ssssss)

Puskatutako jasotzen hasi zen. Eta halako batean zarata bat entzun zen (kriskiiii!)

A- Nork puskatu du lehioa?

Inork ez zuen erantzun

Eta zarata gehiago entzun ziren: Kroskoooo! Kruskuuuu!

Oso haserre jarri zen Lur. Erratza hartu eskuetan eta oihuko hasi zen:

A- Nork nahi du erratzarekin ematea?

Denak isilik geratu ziren. (Ssssss).

Ba martxa hemendik! Ez zaituztet berriz hemen ikusi nahi! Denak etxetik bota zituen.

Eta bere etxean lasai-lasai eta poz-pez geratu zen berriz ere.

- Esketxa: Pertsonaia famatuaren zain

Hotel baten aurrena pertsona bat alde guztietara begira dago, urduri. Bigarren bat iristen da:

- | | |
|---------------------------------|--------------------------------|
| - Kaixo! | - Arratsaldeon! |
| - Zain zaude? | - Ba bai. |
| - Nor etorriko da? | - Uste dut... etorriko dela. |
| - Nola dakizu? | --k esan dit. |
| - Nork esan dizu? | - K esan didala! |
| - Bale. Ea ba ... etortzen den! | - Bai! Bere sinadura nahi dut! |

Irakasleak egoera azaldu eta elkarrizketa irakurriko du.

Bi boluntario eskatuko ditu:

- Irakasleak paper bat hartuko du eta boluntario batek bestea. Esketxa egingo dute.
- Ondoren, irakaslea atera eta bi bolondresen artean egingo dute.

Txandaka, ikasleek paper bat edo beste egin behar dute.

Aukerak:

- Horretan ari direnean, tonuarekin jolasteko eskatzea: baxu baxu egin behar dute, haserre, farrez, negarrez, garraxika... Edo jarrera edo keinuren bat eskatzea: eskua sudurrean, eskua txorkatilean, elkarri bizkarra emanda... Jolas bihurtzean, askoz atseginagoa eta dibertigarriagoa da beraientzat.
- Txandaka egin beharrean, bikoteka jar ditzakegu eta bakoitzari jarrera bat eskatu: zuek barrez, zuek negarrez... Bikote bakoitzak entseiatu egingo du minutu pare batean, eta gero bikote bakoitzak berea egingo du.

- Hizkuntza-paisaia

Ikastetxeko gune ezberdinetan kartelak jarriko ditugu: irudiak eta elkarrizketa laburrak.

- *Patioko atean: Nor dator jolastera? Ni bai! Eta ni ere bai! Nork ekarriko du baloia? Nik! Eta nork ekarriko du soka? Nik ekarriko dut soka!*
- *Eskolako sarreran: Zu bihar etorriko zara? Bai pozik! Eta zuk bihar motxila ekarriko duzu? Ze erremedio!*
- *Pasiloan: Nor dago zure ondoan? Nork ditu oinetako zuriak?...*

Bi-hiru astez egongo dira kartelak.

Denbora horretan, irakasleek hainbatetan erabili behar dituzte karteletan agertzen diren esaldiak. Eta kartelei erreferentzia egiten badiete, hobe.

Denbora horren ondoren, kartelak aldatuko dira: kartel berriak jarri (egitura horrekin edo besteren batekin), lekuz aldatu...

Kartelak irakasleek egin ditzakete, edo ikasleekin egin daitezke saioaren batean eskulan edo jarduera moduan.

- **Abestia: *Ama begira zazu***

Zein abesti erabil dezakegu egitura hau lantzeko? Ez bazaigu abestirik bururatzen, ezaguna den doinuren bat hartu eta letra moldatu dezakegu edo koplak/bertsoak sortu ditzakegu.

Adibidez:

Doinua: “Ama begira ezazu”

- Egoera eta ekintzen zerrenda egingo dugu beraiekin: festetan kantari, hondartzan igeri egiten, kotxea gidatzen...

Taldeak:

Egia edo gezurra ez daukagu argi
Norbaitek jakingo du galdetu berari
Egia edo gezurra ez daukagu argi
Norbaitek jakingo du galdetu berari

Talde osoak bati (aurretik aukeratu behar da):

Nor ikusi zenuen festetan kantari?
Nor ikusi zenuen? esaidazu hori

Taldekide horrek:

Idoia ikusi nuen festetan kantari
Idoia ikusi nuen badakizu hori (*izena abesten duen taldekideak aukeratzen du*)

Dagokion taldekideak:

Nork esan dizu zuri gezur handi hori
Ez nintzen ni ibili festetan kantari
Nork esan dizu zuri gezur handi hori
Bera ibiliko zen festetan kantari

****Banaka baino taldeka ere egin daiteke. Bi taldetan banatu eta izenak esaten diren arren, talde osoak abestu.***

Zaitut/Dizut

- Hizkuntza-jolasa I: *Esku-jolasa*

Esku jolasa egingo dugu.

Bi esaldi esaldi jarriko ditugu arbelean eta esaldi bakoitza eskuekin egin behar den keinu batekin lotuko dugu.

- *Ikusi didazu? = bi behatz begietara eta ondoren esku bat ireki, bertikalean jarri eta behatz batekin esku ahurra seinalatu.*
- *Ikusi nauzu = bi behatz begietara eta bi behatz horiekin norbere bular aldera seinalatu.*

Bestalde, gorputz atal batzuen izenak jarriko ditugu:

Belauna
Kokotsa
Ipurdia
Sudurra
Eskua
Kopeta

...

Aukerako bi erantzunak ere jarriko dizkiegu:

- ...k ikusi zaitut.
- ... ikusi dizut.

Borobilean jarriko ditugu, edo behintzat argi ikus behar da zein den erantzuteko ordena (nork nori galdetu behar dion).

Irakaslea hasiko da. Bere ezkerrekoari bi galderetako bat egingo dio eta keinuekin lagunduko du. Erantzunak galderaren arabera izan beharko du, eta erantzunean ere keinua egin beharko da:

- Kepa, ikusi nauzu? Bai, ikusi zaitut.
- Kepa, ikusi didazue? Bai, burua (zerrendatik aukeratu dezake) ikusi dizut.

Txandaka galdera erantzunak egingo dituzte. Galdera egiten duenak aukeratuko du nor edo nori.

Aukerak:

- Dinamika erraz egiten badute, galdera egiten duenak soilik keinu bidez ere egin dezake. Eta erantzuten duenak ahotsa eta keinua erabili beharko ditu.
- Bigarren pertsonan edo lehenaldian egitea ere erraza da: diozu/duzu, zenidan/ninduzun... Eta erraztasun handia badute orainaldia eta lehenaldia ere jolas berean sartu ditzakegu keinu bat gehituz: behatza lurrera begira (orainaldia) eta esku batekin atzerako keinua eginaz (lehenaldia).

- Hizkuntza-jolasa II: *Zazpi*

Zazpi izeneko jolasa egingo dugu. Talde osoa borobilean jarriko dugu, edo horrela ez baldin badaude, argi geratu behar du zein den ordena: hau da, nork hitz egin behar duen noren ondoren.

Lehenengo urratsa:

- Txandaka zenbakiak esaten hasiko dira: 1, 2, 3...
- Zazpi hitza duten zenbakiak ezin dituzte erabili: zazpi, hamazazpi, hogeita zazpi, hogeita hamazazpi ...
- Horren ordezkari guk nahi dugun esamolde bat erabili behar dute. Adibidez: *ikusiz zaitu?* 1, 2, 3, 4, 5, 6, *ikusiz zaitu?*, 8, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, *ikusiz zaitu?*, 18, 19...
- Nahi dugun unean gelditu egingo dugu (adibidez bi itzuli eta erdi egin ditugunean).

Bigarren urratsa:

- Berriz hasi behar dute zenbakiak esaten, baina oraingoan zortzi ere ezin dute esan eta horren ordezkari beste esaldi bat sartuko dugu. Adibidez: *Nork?*
- 1, 2, 3, 4, 5, 6, *ikusiz zaitu?*, *Nork?*, 9, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, *ikusiz zaitu?*, *Nork?*, 19, 20, 21...
- Nahi dugun unean berriz geldituko dugu.

Hirugarren urratsa:

- Berriz hasi behar dute zenbakiak esaten, baina oraingoan bederatzi ere ezin dute esan eta horren ordezt beste esaldi bat sartuko dugu. Adibidez: *Nik ikusi zaitut!*
- 1, 2, 3, 4, 5, 6, *Ikusi zaitu?, Nork?, Nik ikusi zaitut!, 10, 11, 12, 13, 14, 15, 16, Ikusi zaitu?, Nork?, Nik ikusi zaitut!, 10, 20, 21...*
- Nahi dugun unean geldituko dugu.

Bi-hiru itzuli egin ondoren berdina egingo dugu baina "dizut" erabiliz:

- Zazpi: *Ikusi dizu eskua?*
- Zortzi: *Nork?*
- Bederatzi: *Nik ikusi dizut eskua.*

- Esketxa: *Zauritua eta zaurituari*

Bi mediku ospitale batean:

<i>Aizu!</i>	<i>Bai?</i>
<i>Ikusi duzu?</i>	<i>Ikusi? Nor?</i>
<i>Zauritua ekarri dutena. Ikusi duzu?</i>	<i>Bai. Ikusi dut.</i>
<i>Eta ikusi diozu?</i>	<i>Zer?</i>
<i>Ikusi diozu zauria?</i>	<i>Ez. Oraindik ez diot ikusi.</i>

Irakasleak egoera azaldu eta elkarrizketa irakurriko du.

Bi boluntario eskatuko ditu:

- Irakasleak paper bat hartuko du eta boluntario batek bestea. Esketxa egingo dute.
- Ondoren, irakaslea atera eta bi boluntarioen artean egingo dute.

Txandaka, ikasleek paper bat edo beste egin behar dute.

Aukerak:

- Horretan ari direnean, tonuarekin jolasteko eskatzea: baxu baxu egin behar dute, haserre, farrez, negarrez, garraxika... Edo jarrera edo keinuren bat

eskatzea: eskua sudurrean, eskua txorkatilan, elkarri bizkarra emanda... Jolas bihurtzean, askoz atseginagoa eta dibertigarriagoa da beraientzat.

- Txandaka egin beharrean, bikoteka ja ditzakegu eta bakoitzari jarrera bat eskatu: zuek barrez, zuek negarrez... Bikote bakoitzak entsaiatu egingo du minutu pare batean, eta gero bikote bakoitzak berea egingo du.

- Hizkuntza-paisaia

Ikastetxeko gune ezberdinetan kartelak jarriko ditugu: irudiak eta elkarrizketa laburrak.

- *Jantokian: Bazkaldu duzu? Esan diozu sukaldariari oso goxoa zegoela?*
- *Patioan gordeketan ari diren irudi bat: Ikusi zaitut! Orain ere bai? Beti berdin!*
- *Patioko sarreran: Nork ekarri zaitu? Agur esan joan aurretik!*
- *Pasiloan: Gaur ere poz pozik ikusi nahi zaitut! Irribarre polit hori ikusi nahi dizut!*
- ...

Bi-hiru astez egongo dira kartelak.

Denbora horretan, irakasleek hainbatetan erabili behar dituzte karteletan agertzen diren esaldiak. Eta karteiei erreferentzia egiten badiete, hobe.

Denbora horren ondoren, kartelak aldatuko dira: kartel berriak jarri (egitura horrekin edo besteren batekin), lekuz aldatu...

Kartelak irakasleek egin ditzakete, edo ikasleekin egin daitezke saioaren batean eskulan edo jarduera moduan.

- Abestia

Zein abesti erabil dezakegu egitura hau lantzeko? Ez bazaigu abestirik bururatzen, ezaguna den doinuren bat hartu eta letra moldatu dezakegu edo koplak/bertsoak sortu ditzakegu.

Naiteke-Dezaket

- Hizkuntza-jolasa: *Pilota elkarri*

Pilota elkarri jolasa egingo dugu.

Taldeko kideek elkarri begira egon behar dute. Borobilean egotea egokia da, baina ez ezinbestekoa.

Erabiltzea nahi dugun elkarrizketa arbelean idatzita egongo da. batzuetan erabili ondoren, kendu egingo dugu.

Pilota bat pasako diot taldeko bati eta galdera bat egingo diot (izena beti erabiltzeko eskatuko diegu):

- Nekane, hemen geratu naiteke?
- Bai, noski.

Ondoren, berak beste taldekide bati pasa beharko dio eta galdera bat egin. Edonori pasa diezaioke. Honek pilota hartu eta erantzun beharko du.

- Mainer, hemen geratu naiteke?
- Bai, noski.

Ikasleek dinamika erraz egiten dutela konturatzean, bigarren erantzun bat jarriko dugu aukeran:

- Hemen geratu naiteke?
- Bai, noski edo Ez, orain ez.

Erantzuna ezezkoa bada, bi ikaskide horiek zutitu eta lekua elkar trukatu behar dute.

Jolas bera erabil dezakegu dezaket egitura lantzeko: Txalo bat jo dezaket? Bai, noski (eta orduan txalo jotzen du) edo Ez, orain ez (eta orduan ez du txalo jotzen).

- Esketxa I: *Non utzi dezaket?*

Pakete edo objektu handi batekin dator norbait.

- | | |
|---|-----------------------------|
| - <i>Kaixo. Egun on.</i> | - <i>Egun on, bai.</i> |
| - <i>Pakete hau ekartzera dator.</i> | - <i>Oso ondo.</i> |
| - <i>Hemen utz dezaket?</i> | - <i>Ez, hor ez.</i> |
| - <i>Eta hemen utz dezaket?</i> | - <i>Ez, hor ere ez.</i> |
| - <i>Eta hemen utz dezakete?</i> | - <i>Ez ez, hor ere ez.</i> |
| - <i>Eta zer egin behar dut honekin? Banoa!</i> | - <i>Agur!</i> |

Irakasleak egoera azaldu eta elkarrizketa irakurriko du.

Bi boluntario eskatuko ditu:

- Irakasleak paper bat hartuko du eta boluntario batek bestea. Esketxa egingo dute.
- Ondoren, irakaslea atera eta bi boluntarioen artean egingo dute.

Txandaka, ikasleek paper bat edo beste egin behar dute.

Aukerak:

- Horretan ari direnean, tonuarekin jolasteko eskatzea: baxu baxu egin behar dute, haserre, farrez, negarrez, garraxika... Edo jarrera edo keinuren bat eskatzea: eskua sudurrean, eskua txorkatilan, elkarri bizkarra emanda... Jolas bihurtzean, askoz atseginagoa eta dibertigarriagoa da beraientzat.
- Txandaka egin beharrean, bikoteka ja ditzakegu eta bakoitzari jarrera bat eskatu: zuek barrez, zuek negarrez... Bikote bakoitzak entsaiatu egingo du minutu pare batean, eta gero bikote bakoitzak berea egingo du.

- Esketxa II: Etxera joan naiteke?

Irakasle bat bi ikaslerekin dago:

<i>Irakaslea</i>	<i>A ikaslea</i>	<i>B ikaslea</i>
	- <i>Nekatuta nago, etxera joan naiteke?</i>	
- <i>Ez, oraindik ez.</i>		
		- <i>Eta ni etxera joan naiteke?</i>
- <i>Bai, zu bai.</i>		
	- <i>Baina nik ere joan nahi dut?</i>	
- <i>Baina ez dizut uzten!</i>		
		- <i>Hor konpon zuek biok. Ni banoa!</i>

Irakasleak egoera azaldu eta elkarrizketa irakurriko du.

Hiru boluntario eskatuko ditu:

- Irakasleak paper bat hartuko du eta bi boluntariok besteak. Esketxa egingo dute.
- Ondoren, irakaslea atera eta hiru boluntarioen artean egingo dute.

Txandaka, ikasleek paper bat edo beste egin behar dute.

Aukerak:

- Horretan ari direnean, tonuarekin jolasteko eskatzea: baxu baxu egin behar dute, haserre, farrez, negarrez, garraxika... Edo jarrera edo keinuren bat eskatzea: eskua sudurrean, eskua txorkatilan, elkarri bizkarra emanda... Jolas bihurtzean, askoz atseginagoa eta dibertigarriagoa da beraientzat.

- Txandaka egin beharrian, hirunaka jar ditzakegu eta talde bakoitzari jarrera bat eskatu: zuek barrez, zuek negarrez... Talde bakoitzak entsaiatu egingo du minutu pare batean, eta gero denen aurrean egin.

- Esketxa III: *Ura edan dezaket?*

Ikasle batek irakasle bati:

- | | |
|--------------------------|---|
| - Ura edan dezaket? | - Egarri zara? |
| - Bai. Noski. | - Bale. Edan dezakezu ura. |
| - Komunera joan naiteke? | - Zertara? |
| - Ura edatera! | - Ah! Joan zaitezke komunera ura edatera. |

Irakasleak egoera azaldu eta elkarrizketa irakurriko du.

Bi boluntario eskatuko ditu:

- Irakasleak paper bat hartuko du eta boluntario batek bestea. Esketxa egingo dute.
- Ondoren, irakaslea atera eta bi boluntarioen artean egingo dute.

Txandaka, ikasleek paper bat edo beste egin behar dute.

Aukerak:

- Horretan ari direnean, tonuarekin jolasteko eskatzea: baxu baxu egin behar dute, haserre, farrez, negarrez, garraxika... Edo jarrera edo keinuren bat eskatzea: eskua sudurrean, eskua txorkatilan, elkarri bizkarra emanda... Jolas bihurtzean, askoz atseginagoa eta dibertigarriagoa da beraientzat.
- Txandaka egin beharrian, bikoteka ja ditzakegu eta bakoitzari jarrera bat eskatu: zuek barrez, zuek negarrez... Bikote bakoitzak entsaiatu egingo du minutu pare batean, eta gero bikote bakoitzak berea egingo du.

- Hizkuntza-paisaia

Ikastetxeko gune ezberdinetan kartelak jarriko ditugu: irudiak eta elkarrizketa laburrak.

- *Komunera joan naiteke? Ura edan dezaket? Jolastera joan naiteke? Liburu bat har dezaket? Autobusera joan naiteke?...*

Bi-hiru astez egongo dira kartelak.

Denbora horretan, irakasleek hainbatetan erabili behar dituzte karteletan agertzen diren esaldiak. Eta karteiei erreferentzia egiten badiete, hobe.

Denbora horren ondoren, kartelak aldatuko dira: kartel berriak jarri (egitura horrekin edo besteren batekin), lekuz aldatu...

Kartelak irakasleek egin ditzakete, edo ikasleekin egin daitezke saioaren batean eskulan edo jarduera moduan.

- Abestia

Zein abesti erabil dezakegu egitura hau lantzeko? Ez bazaigu abestirik bururatzen, ezaguna den doinuren bat hartu eta letra moldatu dezakegu edo kopla/bertsok sortu ditzakegu.

- Jarduerak egokitzea eta hizkuntza-errutina txertatzea: *Objektuak pantailan*

Ikasgelako arbela digitalean hainbat irudi jarriko ditugu nahastuta: baloia, pilota, kotxea, galtzak, ohea, katiuskak, betaurrekoak, eskiak, eguzkia... Gai baten ingurukoak izan daitezke guztiak: kirola, musika, paisaia, frutak... (Interneten erraz topatzen direla horrelako irudiak). Objektu askok agertu behar dute (gutxienez 30).

Ikasle bat erdira aterako da. Pantailatik objektu bat aukeratuko du eta paper batean idatziko du.

Taldekideek asmatu egin behar dute zer den aukeratu duena, eta horretarako galderak egin behar dizkiote. Dinamika horretan hizkuntza-errutina txertatuko dugu:

- Galdera bat egin dezaket?
- Bai.
- Baloia da?
- Ez. Nik esan dezaket... Eta pista bat emango dio: handiagoa dela, txikiagoa dela, gorago dagoela, beste kolore bat duela, garestiagoa dela...

Bigarrenak:

- Galdera bat egin dezaket?
- Bai. Betaurrekoak dira?
- Ez. Nik esan dezaket...

Txandaka, galdera eta pisten bidez, objektua asmatu behar dute. Ondoren, beste taldekideek modu berean gidatuko dute dinamika.

...-lako (zergatik ez dut joan nahi)

- Hizkuntza-jolasa I: *Pilota elkarri - zergatik?*

Pilota elkarri jolasa egingo dugu.

Arbelean galdera bat eta gai batzuk jarriko ditugu...

Zergatik gustatzen zaizkizu...	Txakurrak Katuak Kotxeak Ordenagailuak ...
Zergatik joan nahi duzu...	Mendira Hondartzara Eskolara Bilbora ...

Gai bat aukeratu dugu. Adibidez: Zergatik joan nahi duzu eskolara?

Denon artean argudio batzuk aipatuko ditugu: asko ikasten dugulako, lagunekin egoten garelako, kalean eguraldi txarra dagoelako...

Minutu erdi bat utziko diegu argudio gehiago pentsatzeko.

Ondoren, elkarri pilota pasa beharko diote eta horretarako beti modu bera erabiliko da:

- Lehenengoak norbaiti pilota pasako dio: Irati, zergatik joan nahi duzu eskolara?
- Irati: Asko ikasten dudalako. Eneko, zergatik joan nahi duzu eskolara?
- Eneko: lagunekin egoten naizelako.
- ...

Irakasleak lagundu dezake erantzunak osatzen edo zuzen eman ditzaten errepikatu arazten.

Norbait argudiorik gabe geratzen denean honakoa esan behar du:

- Eneko: Miren, zergatik joan nahi duzu eskolara?
- Miren: ... Ahatik!

Ahatik erantzuten denean, guztiak lekuz mugitu behar dira eta beste baten lekuan eseri.

Beste gai bat hartu, argudioak landu, eta berriz hasiko gara.

Helburua da ahalik eta zerrenda luzeena osatzea. Zein gairekin osatuko dugu zerrenda luzeena? Zenbat argudio emateko gai izango gara?

Aukerak:

- Taldea oso handia bada hobe talde txikiagoak egitea (10-12 kideko taldeak).

- Hizkuntza-jolasa II: *Txanogorritxu ipuin soinuduna*

Hiru talde egingo ditugu: talde batek soinuak egin beharko ditu, beste talde batek txanogorritxoren esaldiak esango ditu eta hirugarren taldeak gainontzeko esaldiak.

Irakasleak ipuina osorik kontatuko die eta azalpenak eman.

Bigarren aldiz ipuina kontatzerakoan, talde bakoitzak bere zatia egin beharko du.

Beste bi aldiz ere irakurriko da, eta kasu honetan taldeen zereginak aldatuko dira: txanogorritxu egin dutenek soinuak egin...

Aukera:

- Denbora izan ezkerre eta nahi izan ezkerre, talde txikietan jarri eta ipuin berriak beraiei sortzeko aukera emango zaie (jarduerak egokitzea).

IPUINA:

Txanogorritxu lasai-lasai zegoen etxean. Star Wars-en azken pelikula ematera zihoazen telebistan (ezpata laserren soinua: ñium, ñium...) eta horixe ikusteko gogo handia zuen. Palomitak prestatu zituen mikro uhin labean (plo, plo, plo) eta sofan eseri zen.

Une horretan txirrinak jo zuen.

- *Nor da?*
- *Amatxo naiz.*
- *Zer nahi duzu?*
- *Zu amonaren etxera joatea.*
- *Joeee!*

Amonaren etxera abiatu zenean musika eskolaren ondotik pasa zen. Bibolina jotzen ari ziren (ñi-ñi-ñi...).

- *Txanogorritxu!*
- *Zer?*
- *Entseiatu nahi duzu gurekin?*
- *Ez!*
- *Zergatik?*
- *Amonaren etxera noalako.*

Eguraldi txarra egin zuenez dena lokaztuta zegoen. Aurreratxoago bere lagun batzuk putzuetan jolasean zebiltzan (txof, txof...).

- *Txanogorritxu!*
- *Zer?*
- *Jolastu nahi duzu gurekin?*
- *Ez!*
- *Zergatik?*
- *Amonaren etxera joan behar dudalako.*

Aurrerago tenis pista baten ondorik pasa zen, Eta han ere bere lagun batzuk ari ziren jolasean! (pla! Pla! Pla!) (A ze eguna! Pentsatu zuen)

- *Txanogorritxu!*
- *Zer?*
- *Jolastu nahi duzu gurekin?*
- *Ez!*
- *Zergatik?*

- *Amonaren etxera joan behar dudalako.*

Azkenean iritsi zen amonaren etxera. Amona beste lagun batzuekin zegoen kartetara jolasten (zart, zarta zart...). Eman zizkion botikak eta opilak.

- *Txanogorritxu!*
- *Zer?*
- *Jolastu nahi duzu gurekin?*
- *Ez!*
- *Zergatik?*
- *Ahatik!*

Eta korrika bere etxera itzuli zen. Oraindik Star Wars ikusteko aukera edukiko zuen!

- Esketxa: ***Bagoaz hemendik***

Lau lagun patioan.

Hiruk batera: Balioarekin jolastuko dugu!

Laugarrenak: Ez! Baloiarekin ez!

Hiruk batera: Zergatik?

Laugarrenak: (Kristalera keinu bat eginaz) Kristala puskatuko delako.

Hiruk batera: Sokarekin jolastuko dugu!

Laugarrenak: Ez! Sokarekin ez!

Hiruk batera: Zergatik?

Laugarrenak: Nahiko leku ez dagoelako.

Hiruk batera: Kanikekin jolastuko dugu.

Laugarrenak: Ez! Kanikekin ez!

Hiruk batera: Bagoaz hemendik.

Laugarrenak: Zergatik?

Hiru batera: Aspertu egingo garelako!

Irakasleak egoera azaldu eta elkarrizketa irakurriko du.

Lau boluntario eskatuko ditu:

- Irakasleak paper nagusia hartuko du eta hiru boluntarioek bestea. Esketxa egingo dute.

- Ondoren, irakaslea atera eta laugarrenak bere lekua hartuko du. Berriz egingo dute.

Txandaka, ikasleek paper bat edo beste egin behar dute.

Aukerak:

- Horretan ari direnean, tonuarekin jolasteko eskatzea: baxu baxu egin behar dute, haserre, farrez, negarrez, garraxika... Edo jarrera edo keinuren bat eskatzea: eskua sudurrean, eskua txorkatilan, elkarri bizkarra emanda... Jolas bihurtzean, askoz atseginagoa eta dibertigarriagoa da beraientzat.
- Txandaka egin beharrenean, taldetxoetan jar ditzakegu eta bakoitzari jarrera bat eskatu: zuek barrez, zuek negarrez... Talde bakoitzak entsaiatu egingo du minutu pare batean, eta ondoren denen aurrean egin. Are gehiago, esketxean aldaketak egiteko aukera ere eman diezaiekegu.

- Hizkuntza-paisaia

Ikastetxeko gune ezberdinetan kartelak jarriko ditugu: irudiak eta elkarrizketa laburrak.

- *Eskaileretan: Eskailerak mantso jaisten ditugu. Zergatik? Azkar jaitea arriskutsua delako!*
- *Jantokian: Gaur guzti guztia jango dut. Zergatik? Goxo goxoa dagoelako.*
- *Ikasgelan, autobusean, eskaileran... Edozien guneetan jar ditzakegu. Arauekin edo landu nahi diren balorrek lotu ditzakegu.*

Bi-hiru astez egongo dira kartelak.

Denbora horretan, irakasleek hainbatetan erabili behar dituzte karteletan agertzen diren esaldiak. Eta kartelei erreferentzia egiten badiete, hobe.

Denbora horren ondoren, kartelak aldatuko dira: kartel berriak jarri (egitura horrekin edo besteren batekin), lekuz aldatu...

Kartelak irakasleek egin ditzakete, edo ikasleekin egin daitezke saioaren batean eskulan edo jarduera moduan.

- Abestia

Zein abesti erabil dezakegu egitura hau lantzeko? Ez bazaigu abestirik bururatzen, ezaguna den doinuren bat hartu eta letra moldatu dezakegu edo kopla/bertsoak sortu ditzakegu.

- Jarduerak egokitzea eta hizkuntza-errutina txertatzea: *argudiategia*

Taldeka jarriko ditugu.

Bost gai izango ditugu arbelean jarrita:

Uda hobe da...

Negua hobe da...

Oporrak hobeak dira...

Aldaketa klimatikoa saihestu behar dugu...

...

Gai bat aukeratuko dugu. Taldeka argudioak landu behar dituzte. Adibidez: Uda hobe da beroa egiten duelako, hondartzara joaten garelako, igerilekura joaten garelako, bidaiak egiten ditugulako...

Talde bakoitzak bi ordezkari jarriko ditu: galdera egiten duena eta erantzuna ematen duena.

Lehenengo taldeak bigarrenari galdera egingo dio:

- Uda hobe da...

Bigarren taldeko ordezkariak erantzungo dio:

- ... beroan egiten duelako.

Bigarren taldeak hirugarrenari hizkuntza-errutina berbera errespetatuz galdera egingo dio eta hirugarrenak erantzun. Hirugarrenak laugarrenari. Eta abar.

Bi kasutan eztabaida ere sortu daiteke:

- Talde batek argudioa errepikatzen baldin badu.
- Talde batek emandako argudioarekin beste talderen bat ez badago ados.

Kasu horietan, ados ez dagoen taldeak, hizkuntza-errutina bat erabili behar du kexa adierazteko. Galdera egiten duen ordezkariak adierazi behar du kexa eta beste taldeko ordezkariak erantzun behar dio

- *Ez gaude ados.*
- *Zergatik?*
- *A aukera: hori guk esan dugulako.*
- *B aukera: igerilekura neguan ere joan gaitzkeelako.*

(Hemen irakasleak erabaki beharko du eztabaida horrek jokoa eman ote dezakeen eta luzatzea komeni ote den. Hau da: bi taldeen arteko argudio eztabaida sortu: baina neguko igerilekuetan ezin da jolastu, gure herrian udakoa bakarrik daukagu...).

Argudioak ematen dituzten neurrian, taldeei zerrenda amaituko zaie. Talde horiek jokotik kanpo geratuko dira. Talde bakarrak irabaziko du.

Ondoren, nahi izan ezker, beste gaiekin ere berdina egin daiteke.

Aukerak:

- Benetan interesgarria izan daiteke jarduera baten errebasoan dinamika hau erabiltzea. Hau da: gai bat lantzen dugunean, errebasoa egitera begira moldatzea. Adibidez: aldaketa klimatikoa, edo kutsaduraren ondorioak, edo dena delakoa.
-

... eta! (Si)

- Hizkuntza-jolasa: *Telefonoa*

Telefonoaren jolasa

Irakasleak bere ondokoari esaldiren bat edo azalpen labur bat emango dio belarrira.
Adb: Gaur goiz amaituko dugu eta denbora gehiago izango dugu jolasteko.

Entzuten duenak ozen erantzun behar dio: Zer?

Eta esaldia esan duenak: Esan dizut eta!

Berrero esango dio esaldia

Bigarrenak hirugarrenari, hirugarrenak laugarrenari... Beti errutina bera errepikatu behar da.

Zein izango da amaierara iristen den esaldia?

- Esketxa I: *garbitzailearekin*

Norbait lurra garbitzen ari da fregona batekin. Beste bat sartzen da korrika.

- A: Kaixo!
- B: Kaixo!
- (gelditu egiten da)
- A: Kontuz ibili! Lurra bustita dago eta!
- B: Bai! Lasai!
- (korrika hasten da berriro, eta berehala erori egiten da)
- B: A ze mina! Irristatu egin naiz!
- A: Esan dizut eta! Hau da hau!

- Abestia: *Maritxu nora zoaz (moldatuta)*

Zein abesti erabil dezakegu egitura hau lantzeko? Ez bazaigu abestirik bururatzen, ezaguna den doinuaren bat hartu eta letra moldatu dezakegu edo kopla/bertsoak sortu ditzakegu.

ADIBIDEZ: Maritxu nora zoaz doinuarekin

*Maritxu hondartzara joan nahi nuke nik
Hotza egiten du (e)ta ez dago joaterik
Ba goazen mendira loreak biltzera
Aldapa dago eta nekatuko gera*

*Maritxu ba al zatoz nirekin plazara?
Euria ari du eta busti egingo gara
Maritxu eskolara ba al zatoz nirekin?
Bide luzea da ta goazen elkarrekin*

- Hizkuntza-paisaia

Jantokian:

- Hementxe dilista goxoak.
- Ez! Mesedez! Atzo jan genituen eta!

Irteerako atean ostiraletan:

- Bihar arte!
- Bihar larunbata da eta!

- Jarduerak egokitzea eta hizkuntza-errutinak txertatzea: *Gizarte*

Energia aurreztearen eta birziklaiaren inguruan ari gara lanean. Birziklatzearen garrantzia, birziklatzeko moduak, energia aurrezteko moduak...

Taldeka jarriko ditut. Sei irudi jarriko dizkiet pantailan: iturri bat txorrotatik irekita eta norbait hortzak garbitzen, basura poltsa bat eta barruan mota

ezberdinetako zaborak nahastuta, janariren bat plastiko askorekin bilduta, etxe bat argi guztiak piztuta...

Irudiak txandaka jarriko dizkiet eta argudiak landu behar dituzte. Hori egokai al da? Zer da egokiagoa? Zergatik ez da egokia? Tarte horretan irakaslea taldez talde ibiliko da ariketarekin laguntzen eta elkarrizketak euskaraz izan daitezen laguntzen (kanpo eta parte estrategiarekin jokatuko du).

Ondoren, taldeko kideek zenbakiak banatu behar dituzte elkarren artean: 1etik 6ra.

Lehenengo irudia jarriko du eta hizkuntza-errutinarekin hasiko gara.

- 1- Lehenengo irudia jarri eta eta irudiaren azpian esaldi bat. Adibidez, argi guztiak piztuta dituen etxearen argazkian esaldi hau: etxe honetako bonbilak kontsumo baxukoak dira. Ondo ari dira!
- 2- Lehenengo taldeko 1 zenbakia duenak horren kontrako argudio bat bota behar du: Argi guztiak piztuta ditu eta! (modu horretan esan behar du derrigorrean). Irakasleak: eta hori gaizki al dago? Ikasleak, adb: Bai. Horrela energia asko galtzen du.
- 3- Bigarren taldeko 1 zenbakia duenak beste argudio bat eman behar du: Oraindik egun argia da eta! Irakasleak: eta hori gaizki al dago? Iaskleak, adb: Bai, egun argiz ez da argi elektrikorik behar eta energia galtzen du.
- 4- Horrela jarraituko dugu, eta talderen bat argudiorik gabe geratzen bada, irakasleak esango du. Ados, horrekin nahikoa? Eta beste talderen batek argudio berriren bat eman nahi badu, hizkuntza-errutina errepikatuko da.
- 5- Modu horretan jarraituko dugu beste argazkiekin ere.

- Jarduerak egokitzea eta hizkuntza-errutinak txertatzea: *Mate*

Taldeka jarriko ditut.

Talde bakoitzak buruketa bat egin beharko du.

Hasteko, beraien artean zein urrats eman behar dituzten adostuko dute. Hori egiten duten bitartean ezin dute idatzi.

Hizkuntza erabiltzeko ezinbestekoa da eta nik parte-kanpo estrategia erabiliko dut euskaraz egin dezaten edo mantendu dezaten.

Nola egin adostu dutenean, idatzi egingo dute.

Bigarren buruketa bat emango diet eta berdina egin behar dute, baina aktas bat ere egin behar dute. Emaitzak gaizki egon behar du.

Talde bateko kide bat arbelera aterako da. Bere taldeko kideei banan bana galderak egingo dizkie: Zer egin behar genuen? Zer egin dugu lehenengo? Zer ondoren? Zein da emaitza? Erantzuten dioten neurrian arbelean idatziuko du eta irakasleak zentro izatearen estrategiarekin jokatu du erabileran eragiteko.

Arbelean ariketa egiten ari den taldeak bi aukera ditu: ariketa zuzena egitekoa edo akatsa duena egitekoa. Noski, beraiek ez dute esan behar.

Behin ariketa egiten dutenean beste taldekoek minutu bat izango dute zuzena edo okerra den erabakitzeko.

Denbora horren ondoren irakasleak pilota bat botako dio ikasleren bati eta hizkuntza-errutina bat erabiltzea proposatu:

- Irakasleak: Zer iruditzen zaizu?
- Ikasleak: Zuzendu egin beharko dugu! (eta pilota beste talde bateko bati pasa beharko dio)
- Beste ikasleak: Ondo dago eta! edo Gaizki dago eta!
- (Gaizki baldin badago emaitza zuzena zein den esan beharko du eta pilota beste norbaitu bota eta errutina errepikatu)
- Zer iruditzen zaizu?
- Zuzendu egin beharko dugu!
- Ondo dago eta!

6.7.- Egoera ez formaletarako galderak

Atsedean tartea amaitzeko oraindik dexe falta denean: Goazen gelara! Jaso guztia!
Ordua da. Erantzun adb: Oraindik asko falta da eta!

Txirrinak jo eta baina beste ariketa bat egingo dugula aipatzen diet. Ea ba, atera
liburuak ariketa bat egitek. Erantzun adb: Txirrinak jo du eta!

Epaile lana egiten ari naiz partiduu batean. Gola sartu dute eta nik ateko sarea dela
esaten diet. Erantzun adb: Gola izan da eta!

...

Ez dut nahi (~~Ez nahi dut~~)

Egitura honetarako hizkuntza-jolasak jaso dira dokumentuan baina beste egituretan bezala esketxak, abestiak edo eta paisaia-linguistikorako tresnak sortu ditzakegu.

- Hizkuntza-jolasa I: Urkatua

Borobilean egotea komeni da. Zutik edo eserita. Taldea handia bada, bi-hiru taldetan banatu dezakegu.

Bi talde egingo ditugu. Talde batekoek besteei galderak egingo dizkiete. Ondoren, bigarren taldekoek lehenengokoei. Nahi adina aldiz errepikatu dugu.

Galderak aurretik zehaztuko ditugu eta erantzunak ere bai. Adibidez:

- Nahi duzu ...? Bai, Nahi dut...?
- Ez duzu nahi? Ez, ez dut nahi?
- Ziur ... nahi duzula? Bai, ziur ... nahi dudala.
- Ziur ... ez duzula nahi? Bai, ziur ... ez dudala nahi.

Galderetan txertatu daitezkeen objektuen zerrenda arbelean idatziko dugu. Nahi izanez gero galderak eta erantzunak ere idatzi ditzakegu arbelean.

Arbelaren ondoa bi ikasle jarriko ditugu: batek erantzun zuzenak apuntatuko ditu eta bestea erantzun okerrak. Erantzun zuzenak apuntatzen dituenak letrak idatziko ditu, eta esaldi bat osatu behar du. Adibidez: Lortu dugu (edo *Erraz lortu dugu, Guk lortu dugu...*). Erantzun okerrak apuntatzen dituenak urkatuaren irudia osatuko.

Lehenengo urratsa:

- A taldeko kide batek pilota bat izango du eskuetan. Pilota pasako dio B taldeko kide bati eta galdera bat egingo dio.
- B taldeko kideak galdera erantzungo du. Ondo erantzuten badu, letra bat idatziko dute arbelean eta gaizki erantzuten badu urkatuaren irudiaren pauso bat.
- A talde beste kide batek hartuko du pilota, B taldeko kide bati pasako dio eta galdera bat egingo dio.
- Dinamika errepikatuko da hitza osatu edo urkatuaren irudia egin arte.

Bigarren urratsa:

- B taldekoek egingo dizkiete galderak A taldekoei. Prozesu bera errepikatuko da.

Kontuan izatekoak:

- Nahi adina aldiz errepikatu dezakegu. Hitza zenbat aldiz osatu den eta urkatuaren irudia zenbat aldiz egin den kontatuko dugu.
- Zuk-zu jolasean bezala galdera eredu ezberdinak erabil daitezke jolasa zailagoa egiteko.

- Hizkuntza-jolasa II: Pilota elkarri

Taldeko kideek elkarri begira egon behar dute. Borobilean egotea egokia da, baina ez ezinbestekoa.

Erabiltzea nahi dugun elkarrizketa arbelean idatzita egongo dira. Nahi dugun zailtasunaren arabera kopurua gehitu dezakegu: bi, hiru, lau...

Pilota bat pasako diot taldeko bati eta galdera bat egingo diot. Honek dagokion erantzuna eman behar dit.

Ondoren, berak beste taldekide bati pasa beharko dio eta galdera bat egin. Edonori pasa diezaioke. Honek pilota hartu eta erantzun beharko du.

Hirugarren honek beste batik pasako dio eta galdera egin...

Erraza izatea nahi badugu, bi galdera-erantzunekin joka dezakegu: Lehenengo galdera egin eta pilota jaso duenak erantzun. Ondoren, honek bigarrena egin eta pilota jaso duenak erantzun. Hirugarrenari pasatzean, lehenengo galdera errepikatu, eta modu horretan jarraitu:

- A- Nik ez dut nahi - B- Ez, nik ere ez dut nahi.

- B- Nahi al duzu? - C- Bai, noski, nahi dut.
- C- Nik ez dut nahi - D- Ez, nik ere ez dut nahi
- D- Nahi al duzu? -E- Bai, noski, nahi dut
- ...

Zailagoa izatea nahi badugu, hiru edo lau elkarrizketa egon daitezke arbelean, eta nahi duena aukeratu dezake pilota duenak. Are gehiago, bi esaldikoak izan daitezke baina baita luzeagoak ere.

- Nik ez dut nahi. Eta zuk? -Ez, nik ere ez dut nahi.
- Nahi al duzu? - Bai, noski, nahi dut.
- Badakizu zergatik ez dudan nahi? -Nik ez dakit zergatik ez duzun nahi. -Nik badakit: ez duelako nahi!
- Norbaitek nahi al du? -Ez dakit, galdetuko dut: norbaitek nahi al du? -Ez dut uste, inork ez du nahi.

- Hizkuntza-jolasa III: Positibo-negatibo

Taldekilde bakoitzari txartel bat emango diogu. Txartelean positiboaren irudia (+) edo negatiboaren irudia izango du (-).

Arbelean esaldi positibo batzuk elkarrizketa moduko bat osatuz eta negatibo batzuk beste elkarrizketa bat osatuz izango ditugu.

Adibidez:

- Bai, nik nahi dut. - Nik ere bai, nik ere nahi dut. - Noski baitez, nik ere nahi dut. - Ados ni ere, nik ere nahi dut.
- Ez, nik ez dut nahi. - Nik ere ez, nik ere ez dut nahi. - Niri ez begiratu, nik ere ez dut nahi. - Ez, nik inolaz ere ez dut nahi.

Taldekildeek txandaka esaldi bat esan behar dute.

Taldekilde bati hasteko eskatuko diogu. Bere txartela positiboa bada, lehenengo esaldi positibotik eta negatiboa bada lehenengo esaldi negatibotik.

Bigarrenak bere txartela erakutsiko du: positiboa bada bigarren esaldi positiboa esango du eta negatiboa bada lehenengo negatiboa.

Hirugarrenak bigarrenaren arabera jarraitu beharko du. Eta abar.

Adibidez:

- A + Bai, nik nahi dut
- B - Ez, nik ez dut nahi.
- C - Nik ere ez, nik ere ez dut nahi
- D - Niri ez begiratu, nik ere ez dut nahi
- E + Bai, nik nahi dut
- ...

- Hizkuntza-jolasa IV: *Koloretako txartelak*

Lau talde egingo ditugu. Talde bakoitzari bi txartel handi emango dizkiogu. Adibidez: zuria eta beltza.

Arbelean hiru esaldirekin osatutako bi elkarrizketa idatziko ditugu. Adibidez:

- Bai, nahi dut. - Ziur nahi duzula? - Bai, ziur nahi duela.
- Ez dut nahi. - Zergatik ez duzu nahi? - Ez duelako nahi.

Elkarrizketa bakoitzari kolore bat emango diogu: lehengoa zuria eta bigarrena beltza.

Talde bateko kideak hasiko dira. Bost txanda dituzte. Txanda horietan txartela bana erakutsi behar dute: zuria edo beltza (nahi duten ordenean). Zuria ateratzen dutenean, bigarren taldekoek elkarrizketari heldu behar diote eta taldekide guztiek batera eta ozen lehenengo esaldia esan behar dute. Hirugarren taldekoek bigarren esaldia eta laugarren taldekoek hirugarren esaldia.

Ondoren, bigarren taldekoek beste bost txanda izango dituzte txartelak erakutsi eta elkarrizketa abian jartzeko.

Jarraian hirugarren eta laugarren taldekoek ere berdina egingo dute.

Kontuan izatekoak:

- Nahi izanez gero, zailtasun gehiago sar daitezke jolasean. Bi aukera behintzat badaude horretarako:

- Elkarrizketak zenbait aldiz egin ditugunean, arbeletik bigarren eta hirugarren esaldiak kentzea eta soilik lehenengo uztea. Hau da: elkarrizketa hasi behar duenak argi ikusten du zein den esaldia, baina besteek buruz esan behar dute.
- Koloretako txartel gehiago egin eta banatzea, bi elkarrizketa baino gehiago jartzea arbelean. Hau da: lau elkarrizketa daude eta lau txartel, nahi duten ordenean altxa ditzaketenez txartelak, zailagoa da esaldien ordena jarraitzea.

- Hizkuntza-jolasa V: *Esku-jolasa*

Zenbait esaldi jarriko ditugu arbelean eta esaldi bakoitza eskuekin egin behar den keinu batekin lotuko dugu.

Adibidez:

- Zuk nahi duzu? = Behatz potoloa gora eta gainontzeko behatzak bilduta.
- Ez, ez dut nahi = Behatz potoloa behera eta gainontzekoak bilduta.
- Zergatik ez duzu nahi? = Eskua zabalik, esku ahurra erakutsiz, eta behatzak beheraka.
- Ez dudalako nahi = Eskua zabalik, esku ahurra erakutsiz, baina behatzak goraka.
- Hau ez dut nahi baina beste bat nahi nuke.
- Hau ez baduzu nahi, ez daukat besterik = Bi eskuak zabalik, esku ahurrak erakutsiz, eta eskuak beheraka.

Lehenengo urratsa:

- Lehenengo bi esaldiekin hasiko gara. Lehenengoak bigarrenari galdera egin behar dio eta eskuarekin keinua ere bai.
- Bigarrenak erantzungo dio (eta keinua egingo dio).
- Bigarrenak hirugarrenari berriz galdetuko dio, eta abar.

Bigarren urratsa:

- Hirugarren eta laugarren esaldiak eta keinuak sartuko ditugu.
- Lehenengoak bigarrenari galdetuko dio eta honek erantzun.

- Bigarrenak hurrengo esaldia hartu eta hirugarrenari galdetuko dio eta honek erantzun (keinuak eginaz, noski).
- Hirugarrenak berriz lehengo galdera egingo dio laugarrenari, eta abar.

Hirugarren urratsa:

- Bosgarren eta seigarren esaldiak eta keinuak sartuko ditugu.
- Prozesu bera egingo dugu.

Kontuan izatekoak:

- Aukera bat izan daiteke tarteka itzuli bat keinuekin soilik egiteko eskatzea, edo keinurik gabe egitea.
- Hasierako esaldiak edo errazenak diren esaldiak arbeletik ere kendu ditzakegu eta buruz erabiltzeko eskatu.